

Aurreko hilean hasitako egitasmoarekin jarraituz, hemen bidaltzen dizuegu gure On Jose Maria Arizmendiarrietaren beste pentsamendu handi bat, gaurko honetan GIZARTEAREN ERALDAKETA aldarrikatuz. Beharbada horixe izan zen bere filosofia eta pentsamendu zabalaren ardatz nagusia. Berarentzat kooperatibak izango lirateke helburu hori pixkana-pixkana lortzeko bide bat.

"Mundua ez zaigu eman kontenplatzeko, eraldatzeko baizik"

(p235)

Aurreko pentsamenduarekin lotutako beste batzuk

"... ..eta azkenean hauxe da dugun egoera soziala, gizarte bat non handinahikeriak, harrokeriak, egoismoak eta indartsuen krudeltasunak inoiz izan ez duten lekua hartu baitute, masen, gizakien eta gizateriaren benetako interesen kalterako. Horretara heldu gara." (p084)

"Orain arte herriari egin diogun ekarpena esperientzia kooperatibo hau izan bada, hemendik aurrera garapen komunitarioa eskaini beharko genioke, baina arduraz eta koherentziaz". (p126)

"Askotan esaten dugu bidegabekeria sozialen aurka, lansaridunen esplotazioaren aurka, aberastasunen gehiegizko pilaketaren aurka, eta beste gauza batzuen aurka borroka egin behar dugula, baina ulertu al dugu morrontza nagusia eta esklabotasunik handiena eta larriena pobrezia intelektuala dela?" (p195)

"Kooperatibek ez dute mundu itxiak izan behar, irradiazio sozialerako zentroak baizik: ez gara konkistatutako mundu batean bizi, baizik eta justizia sozialaren eta giza ordena bidezko baten aldeko gudu zelaian." (p433)

"Klaserik gabeko gizarte baterantz martxan, etsi gabe, ez bakarrik interklasista, eta gizarte horren protagonista eta eraikitzailea izateko ez da nahikoa aldarrikapen iraultzaileak egitea, baizik eta egiazko parte hartze ekonomikoa, soziala eta politikoa, hirurak ala hirurak banaezinak".

"Sustapen integrala, indibiduala ea komunitarioa, herriak protagonizatuta, eragindako subjektuek beraiek protagonizatuta, kooperatibaren bitartez da bideragarria, klaserik gabeko gizarte baterantz martxan, senidetasunezko gizarte dinamiko eta justu baterantz." (El Hombre Cooperativo, IX-1.8)

"Gure herriko beste sektore bat dago, zeinarekin gure elkarrizketa eta harremana progresiboak izan behar diren: langileen masa da, masa proletarioa, sindikatueta antolatzen dena bere interes hurbilekoenak defendatzeko eta emantzipazioaren alde borrokatzeko. Sentiberak izan behar dugu horien arazo eta egoerekiko..." (El Hombre Cooperativo, X-5.2)

"Langile klasearen adin nagusitasuna finkatuko da langile klaseak posizio irmo bat finkatzen duenean produkzio ondasunen jabetzan eta, ondorioz, ekonomiaren alor guztietan eragiten duenean" (p497)

"Eskuz esku, buruz buru, indarbarriturik, lanean elkarturik, lanaren bidez, gure lurralde estuan denontzako gizabide bizigarriagoak eratuko ditugu eta lurralde au edergarrituko dugu.

Gure kidesun barrietan txeratatuko ditugu auzo ta erri, erri eta beste guztiak: Aurrera beti!

Iñor ez iñorren otsein, ez jaun, izan dadin denok denontzako suilletan, eginkizunez, jokabide barriak onartu bear ditugu.

Auxe izango da gure alkartasun gizatsua eta aurrerapidetsua – gure erria erriaren indarrez jaso dezakeena" (El Hombre Cooperativo, X-8.4, hil baino egun batzuk lehenago, testu literala)